

bidegileak



Iñaki Olabeaga (1901-1983)

Egilea:

PATXI EZKIAGA

Lehenengo urteak

Donostia, mendearen hasiera. Kanpario kaleko etxe handi batean bizi zen aspaldi samarretik Olabeaga-Aldanondo familia, itsasoari emana, eta ez bakarrik mendebaleko balkoiak kaiaren berri zekarkielako, kresalaren usaina, itsaso lasai eta narearen xuxurla, enbata egunetako marruma... itsasoa aitarekin batera etorria baitzen etxera. Donato, familiaburua, goitizenez «Baztangas», jatorriz mutrikuarra, Merkataritza Ontziteriako kapitaina zen eta lan horretan jarraituko zuen baldin eta laugarren semea jaio baino zertxobait lehenago beste ontzi batekin talka egin eta bi kapitainak Ondarretako kartzelara bidaliak izan



Iñaki Olabeaga (1901-1983).

ez balira, bertan 3 urte 3 hilabete eta 3 eguneko zigorra betetzera. Handik irtetean, kapitain graduazioa galduta, bi arrastontziren patroiz gisa jardun beharko zuen erretiratu zen arte, Marinel Kofradiaren buru ere izan eta gero.

Itsasoa, ordea, etxe hartako arimaren erdia besterik ez zen, ama, Manuela Aldanondo, Astigarragakoa baitzen, Santiomendiko ermitaren ondoko baserri batekoa. Eta familiak



Olabeaga-Aldanondo familia. Eskuinaldean zutik dagoen mutikoa da Iñaki.

askotan hartzen zuen Peñaflores kalean tranbia, Amarako padurak zeharkatu, oraindik kanalizatu gabe zegoen Urumea alboratu eta Loiola eta Txominenean zehar Astigarragara egiteko. Plazatik gora igoera luze eta piku samarra gelditzen zitzairen, baina, behin baserrian, uztarriz, leraz eta gurdiz betetzen zen Iñaki haurraren unibertsoa. Bere arreba Ebaristak, Bordele ondoko Blanquefort-Caychac herrixkan orain dela gutxi hil baino zertxobait lehenago esaten zigun bezala: «Familia oso elkartua ginen. Amak ez zekien hitz bakar

bat ere gazteleraz...». Orduko argazki hau gelditzen zaigu, Iñaki, La Salleko praile izateko asmotan, Irunerako bidean jarri bezperan edo egindakoa, amak oraindik besoetan baitauka orduan urte pareta baino izango ez zuen azken semea. Iñaki Olabeaga 1901eko urriaren 14an jaio zen eta 16an bataiatu zuten Santa Mariako parrokian.

Oraindik lau urte besterik ez zuela hartu zuen parrokia berean sendotza, on José Cadena y Eleta Gasteizko gotzainaren eskutik. Ez dakigu ziurtasun osoz noiz egin zuen Iñakik Colegio



Angel eta Joxepi anai-arrebaren familiakoekin.

de los Angelesera, garai hartan eskola Etxague kalean baitzegoen eta ez oraindik San Juan kalean Brunet eta Muñoa jaunek eraikitako etxe berri ederrean. Hala ere, 1913-1914 ikasturteko eskola liburuetan kalifikaziorik gorenekin azaltzen da eta harro idatzi ahal izan zuten bertako Anaia frantsesek honako hau beraien *Historique de la Communauté de los Angeles-Saint Sebastien* liburuan: «14. avril. 1914: Ignacio Olabeaga, élève de la 2.^a classe part pour le Petit-Noviciat d'Irun». Harri-garria, hasieran behintzat apaiz protestantetzat baitzituzten Donostiako Alde Zaha-

rrean Frantziatik etorritako praile papartxuridun haiek. Gainera, Iñakik berak utzi zigun idatzita bere lehenengo asmoa karmelita izatea zela, praile hauen elizan urtetan akolito izatearen eraginez, noski. Bere lagunmin bati jarraitzeagatik egin zuen Irunera.

Lehenengo Gerra Handiaren urteak ziren eta, Irungo Anaia asko frantsesak zirenez, modu biziki gogorrean bizi izan zuen Iñakik gerra bere formazio urteetan. Haatik, agian mesedetzat jo beharko dugu garai hartan kanpotar asko eta askorekin ikasi izana, bertan landatarrak, bearnoarrak, euskaldunak, kata-

lanak, aragoiarrak eta abar luze bat baitzeuden, lñakiri bizitzarako leiho bat baino gehiago irekitzen lagundu ziotenak. Honek guztiak, ordea, ordain latza eskatu zion eta, 1919an, Burgoseko Bujedon urte bat eman ondoren, euskalerriratu zen gaztea prozesu beldurgarri baten zurrunbiloan aurkitu zen: ama hizkuntzaren pixkanakako galerak sortu ziona. Ia konturatu gabe, modu guztiz sotilean, hutsik sentitu zen, formazio urteetako uniformitate zorrotzak sortutako hustasun beldurgarrian. Esan dezakegu kontzientzia hau izan zela geroako jardun eta ekimen asko eta askotara bultzatu zuena, lñakik ikaragarritzko dramatismoz bizi izan baitzuen arbasoen mundutik egotzita zegoela sentitzea.

Bi gerren arteko jarduna (1919-1936)

Hamazortzi urte bete berriak, Irungo Colegio San Marcial-era destinatu zuten praile gaztea luzaxka zen, argala, gihartsua, bizitasunez eta garrez betea. Bost urte eman zituen bertan eta, Baionako *Petit Saint-Bernard*-en bi ikasturtez lanean jardun ondoren, Irunera itzuli zen oster. 1925-26 ikasturtearen erdian bere anaia baten heriotzaren berri eman zutenean eskelak «ausente» gisa aipatzen zituen familiako bi erlijiosoak, «Hno. Luis Ignacio de la Doctrina Cristiana; eta Hna. Modesta, Carmelita Terciaria», lñaki eta bere arreba Manolita, hain zuzen ere, abitua hartzean emandako izenez mozorrotuta. Irundik



La Arboledan, bere lehen ikasleekin eta elkarteko bi Anaiekin batera.

Bizkaiko LaArboledara jo zuen eta han eman-
dako urtean musikari, pilotari eta irakasle
bikainaren sona utzi zuen familia meatzarien
artean. Handik berriro Irunera bidali zutene-
an Iñakik etorkizunean erraiak jango zizkion
harra lanean hasita sentitu zuen bere barruan.

Iñakik Irunen eta Beasainen 1929tik 1936ra
bitartean egindako zazpi ikasturteetan zabal-
-zabalik agertzen zaizkigu gizonaren gerorako
ildoak. 1930. urteak aldaketa esanguratsua
ekarri zuen hemengo Anaia euskaldunentzat,
ordura arteko beren Baionako Barrutia utzi
eta Valladolideko Barrutira pasatu baitzituz-
ten agintariek. Bestalde, hurrengo urteko
Errepublikaren Aldarrikapenak eragin ikara-
garria izan zuen tokiko erlijiosoentzat eta,
Euskal Herria bere Estatutu propioarekin
aurrera eta atzera zebilen bitartean, 1931ko
maiatzean Madrileko La Salleko Colegio de
Maravillas erre izanak dardara bizian jarri
zituen praile asko eta asko. Irunen, adibidez,
bertan behera utzi zituzten eskolaren 25.
urteurrena ospatzeko prestatuta zeuzkaten
ekitaldiak. Horretaz gain, Iñakik hirugarren
drama pertsonal bat bizi izan zuen. Honela
adierazten digu berak utzitako eskuizkribu
batean: «Aitak bisita egin zidan batean “Aquí
está nuestro castellano instruido” hitzekin
agurtu ninduen, ordurako zeharo galdua bai-
nuen euskara. Geroxeago, ama hilzorian zego-
nean ezin nion hiltzen lagundu. Euskal liburu
bat eskuetan hartu eta irakurri egin nion.


Orduan erabaki nuen euskara berreskuratu
behar nuela».

Ez dago dudarik Iñaki bere indar guztiz jarri
zela lanera. Bere ikasle ohi batek 1980ko
urriaren 28ko *Diario Vasco*-n idazten zuenez,
«gutako batzuek gugan euskalzaletasuna
ernarazten saiatu zelako estimatzen dugu,
guztiz analfabetoak baikin arlo horretan...
Berak ikasgarritasun zizkigun gabonetako eta
elizako euskal kantak, den dena ulertzeko
gauza ez baginen ere...». Ordurako, buru bela-
rri ziharduen euskararen munduan, eta
1933ko abenduaren 20an Euskarazko Azter-
keta batera aurkeztu zen Donostian, *Eusko-
Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos*-ek
emandako ziurtagiri batek adierazten duen
bezala. Dena den, badirudi oraindik ez zela
geroko gizon jantzia, «Txaramel» goitizenez
sinatzen zuen haren iloba Joseba Olabeaga
kazetariari sinetsi behar badiogu bederen.

Baina Iñakiren euskaltasunaren urak barru-
-barrutik ari ziren arroa irekitzen eta 1934-35
ikasturtea bukatu eta Beasaindik bota zu-
teneko kronikak oso dira adierazgarriak.
Guraso Elkarteak Anaia Ikuslariari bidalitako
Memoriak honela zioen: «...kanpaina maltzur
honek on Ignacio Olabeagaren aldaketak so-
rrarazi dituen komentaketekin jo du goia. Ba-
tzuek diote “bota egin dute eta berdin joan
beharko dute nazionalista guztiak”; beste ba-
tzuek esplikazioak eta ordainak eskatzen
dituzte, “guztiz gezurrezkoa baita Elkartean



1933. urtean, *Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos*-ek eman zion agiria, euskarazko azterketa gainditu ondoren.



Agiriaren zenbait xehetasun.

joera eta ekimen nazionalistak daudela". ...Garbi dago ere Olabeaga jaunaren ordezkoa euskalduna ez izateak herio zauriz jo dituela nazionalistak, tradizionalisten poz eta atseginerako... Dena den, hau da garbi dagoe-na: guk paregabeko irakasle aparta galdu dugula». Bestalde, Memoriak ez du ezkututzen zer-nolako tentsio beldurgarriak eta mehatxuak izan ziren, arazoa zela-eta, gurasoen artean.

Mila bederatziehun eta hogeita hamabosteko uda, ordea, ez zen antzua izan Iñakirentzat. Honela dio bere hitz propioetan: «Baina heldu zen Errepublika. Estatua eztabaida bizian zegoen eta eskoletan euskara sartu nahi zenez, gure Anaia Javier Mintegiaga –euskaraz ez jakin arren gure hizkuntzaren alde gogotik jardun zuena– Belgikara joan zen *Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos*-ek bidalitako batzordearen kide gisa,

han irakaskuntza elebiduna nola antolatuta zegoen aztertzearen. Itzuleran zenbait liburu argitaratu beharko genuela esan zigun. Gero Anaia Ikuslaria etorri zen, Anaia Jesus Iziarrekin batera lan horri ekin beharko niola esatera. Andoainen hasi ginen. Gogoan dut nola ostegun eta igandero Hondarribiko Aita Kaputxinoen liburutegian informazio bila orduak eta orduak ematen nituen, gure artean ezer gutxi baitzegoen».

Horrela sartu ziren La Salleko Anaiak euskarazko argitalpenen munduan. Eskolarako testuak besterik ez ziren, Zarauzko Itxaropenak, Bruñok edo Eusko Ikaskuntzak berak kale-ratu zituztenak: *Zenbakiztia* (Aritmetika), *Neurritzia* (Geometria), *Historia Saindua*... eta, Gerra Zibilagatik, kaleratu gabe gelditu ziren Antologia edo Irakurketa Liburua, Euskal Gramatika... eta beste batzuk.

Lau hilabeteko izualdia

Ez da batere erraza ikasturtearen amaieraren eta azaroaren 16an Frantziako Annapesen aurkitzen dugun arteko lau hilabete horien historia ongi betetzea, lñakik berak moztu egiten baitzuen behin eta berriz garai hartaz galdetzen genionean. Interesgarria da abuztuari buruz Anaia Jose Iriartek dioskuguna. «...“Nazionalak” Irun erre eta birrindura itzuli zirenean, Anaiak ere itzuli eta hondamendiaren erdian jarri ginen. Batzuek ezin zuten ... lñaki Olabeagak horien artean. “Gorriek” Guadalupeko Gotorlekuan atxilotutako zenbait eskuindar libre gelditu bezain laster herrira jaitsi ziren odol egarritz. Gogoan dut halako egun bate-

an horietako batek, etxeko laguna bera eta oso ezaguna, mehatxuka galdetu zidala: “Non da Anaia lñaki Olabeaga?” Ez nekiela erantzun nion. Orduan zera bota zidan: “Pistola bat daramat patrikan errepuestoko hiru balakin. Jo eta akabatu egingo dut harrapatzen dudan tokian”.»



1936ko abuztuaren 23an Zarauzko Frente Popular de Guipuzcoak eman zion bidaiatzeko baimena.

Iñakik sarritan erakutsi zuen zer-nolako ezpaz egina zegoen eta, jesuita batekin, gorriean zegoela, Donostiatik ihes egiten lagunduz Monseñor Gandasegi, Valladolideko artzapezpikuari, mendiz, Murumenditik Beasaineraino bidea eginez. Berak, ordea, behar izan zuenean, ez zuen halako cicronerik izan.

Garai hartako bi salbokondukto gordetzen zituen: bata, Zarauzko Frente Popularrarena, abuztuaren 23an Irunera itzultzeko baimena ematen ziona; bestea Irungo Frente Popularrarena, hurrengo egunean Zarautza buelta zitekeela zioena. Ezin izan dugu jakin zein ote zen bidaia horren xedea. Badirudi bere iloba kazetariari zenbait dokumentu gordetzen lagundu ziola, Mirandako Dukeen bitxiak aurrena Aizarnazabaleko baserri batean lurperatze lanetan jardun zuen bezala, gero, Iñakik berak Frantziara eraman zituenak.



Irungo Frente Popularrak 1936ko abuztuaren 24an eman ziona.

Azaroan gaude, 1936, eta Iñaki Olabeagak bere bizitzako momenturik saminenetakoak bizi beharko ditu. Horrela dio Annappeseko Historikoaren Osagarri batek: «Le 16.11.1936 nous arrivait d'Espagne le c.f. Luis Ignacio échappé de St Sébastien». Anaia Javier Mintegiagari esker Donostiako Frantziako Kontsulatuak muga pasatzeko baimena eman zion. Iñakik negarrez esan zien agur Zarauzko Colegio San Jose zaharrean gelditzen ziren Anaiei. Olabeagak idatzita utzi zigunaren arabera: «Nireak ez zuen politikarekin zerikusirik... Batzuek esan dute abertzalea nintzelako erbesteratu nindutela. Ez da egia. Nire auzia euskara zen eta halabeharrez aldegin behar izan nuen, nire superioerek horretara bultzatu nindutelako...». Erroman gordetzen diren



Trenbidean bidaiatu ahal izateko nortasun agiria, 1936an emandakoa.



Erbestera joan aurretiko azken agurra Zarauzko *Villa Manuelan*. Hantxe zegoen kokatuta salletarren San José eskola.

Espainiako orduko bi superioren memoriek beste zerbait adierazten digute, hots, Iñakirentzat kultura zenak beste batzuentzat politika usaina hartzen zuela. Baten hitzetan: «...bateraezinak bateratzera bidali ninduten... Bujedoko Anaiek mehatxuak sartzen zizkidaten ate azpitik...». Bigarren dokumentua askoz adierazgarriagoa da eta Valladolidetik 31 prailak bidalitako gutun baten berri ematen digu: «...gure Barrutian badira, bentzututa ere Espainiako errealitatera makurtzen ez diren Anaia separatistak... erbestera itzazu...

horietako batzuk afusilatuak izateko motiborik ere eman dute-eta... Ezin zaie utzi eskolan jarduten, zuzendari espainiar baten agindupean ez bada, eta “Vascongadas”-etatik urruti. Kontuan hartuko gaituzula espero dugu. Horrela ez bada agintari zibil eta akademikoengana jotzeko libre sentituko gara». Gutunarekin batera zerrenda bat zihoan eta bertan zegoen Iñaki Olabeagaren izena. Baina Iñaki ez zen erbesteko bidea hartu behar izan zuen bakarra. Hori bera gertatu zitzaion beste lauri ere.

Annappes (1936-1944)

Hil baino urte batzuk lehenago, 1976an, «Zein izan dira zure bizitzako egunik zoriontsuenak?», galdetu zitzaionean, «Nire bizitzako egunik zoriontsuenak? Annappesen egin zidaten harrera, —erantzun zuen Iñaki Olabeagak—. Anaia Zuzendaria aipatu nahi nuke guztien gainetik, oso gizon serioa izan arren, bihotz handikoa baitzen. Hark arindu zituen nire zauri sakon eta mingarriak».

Ez dago zalantzarik hala izango zela. Iñaki Olabeaga hil zenean, hamabost gutun luze jaso ziren Annappesen berarekin bizitakoek bidalita. Eta dagoeneko 50 urte iraganak ziren! Michel Deswartek honela deskribatzen zuen iristen ikusi zuten gizona: «Errefuxiatu gizajo bat ikusi nuen, traje beltz ilunez jantzita; betaurrekoen atzeko begiak biziak ziren, oso, ile beltza zeukan eta maleta bakarra zekarren».




Iñaki Olabeagaren *Euzkadiko Igarobidea*, Telesforo de Monzón herrizaintzako burukidea zen garaian.

Baina Iñakik horrelako inpresioa utzi bazien bertakoei, ziur gaude Annappeseko etxe handi eta lasaiak indarrez jo zuela errefuxiatu gaztearen bihotza. T formako etxeak aurrealde zoragarria zuen eta belarrez, baratzez eta basoz inguratuta zegoen. Hain ongi integratu zen bertako bizimoduan, eta haren frantsesa hain zen ona non handik gutxira eskola bateko zuzendariorde izendatu eta bere ardura-pean jarri baitzituzten hogeitaz bost urte arteko bost praille gazte.



Annappestik etorrita, Landesetako Mouran, bere arreba Ebaristaren familiako eta ahaideekin.



Zarauztik Annappesa jo zuen errefuxiatuaren begiak biziak ziren, argiak, ile beltza zeukan... eta maleta bakarra zeraman berarekin batera.



Lille, 1939ko maiatzaren 5ean. Iñaki Olabeaga Alberto Onaindia kalonjearekin eta beste bi lagunekin. Bigarren Mundu Gerrako urteetan Annappesen egon zen bitartean, harreman estuak izan zituen beste zenbait erbesteraturekin.

«Gizon zuhurra zen eta bere arazoak bere arimaren barrenean gordetzen zekien nahiz eta, adarra jotzeko, euskararik onenean “Olabeagatar Iñaki Anaia” esaten genionean bere irribarrean aberri eta familia urrutiaren tristezia puntua sumatzen zitzaion.» Maurice Boccarenek berriz honelaxe zioen: «Garbi utzi zigun Francok zer-nolako iritzia merezi zion. Alemanak ere ez zituen atsegin eta, gu bezalaxe, aliatuen garaipenaren irritsaz zegoen. Esperantza hau elikatzeko, ezkutuan entzuten genituen, berarekin batera, *Radio Londres*-en emisioak».

Bestalde, badakigu harreman oso estua gorde zuela bere familiako beste errefuxiatuekin eta ahal zuen guztia lagundu ziela Belgikan egon ziren bitartean. Eta badakigu ere noizean behin Passy-Froyennesen erbesteratuta zegoen Manuel Oiartzabal izeneko Anaia azpei-

tiar baten bisitak izaten zituela eta, basoan sartzen zirenean euskal kantak kantatzeari ekiten ziotela bi ahotsetan.

Gerra garaian, 1943-44 ikasturtea aurrera zihoala eta Iñaki Nobiziatu Txikiko zuzendariordea zelarik, Valenciennesera bidali zuten, ikasleek gero eta gose handiago jasaten ari zirela eta horren errua etxeko zuzendari orokorrari leporatu ziolako. Superiorek ez zioten barkatu bere ausardia eta berriz ere bidean jarri behar izan zuen, alemaniarrengandik izurrian zihoazenei ihesbideak prestatzeko enkarguarekin.

Haiek izan ziren erbeste garaiko azken urratsak, gutxira, itzultzeko ordena etorri baitzitzaion. Beraz, Uztaritzera jo zuen lehenik eta bertan eman zuen muga pasatzeko pasaportea eskuetan izan arteko denbora. Hendaiako Espainiako Kontsulatuak emandako pasapor-

teak 636. zenbakia zeukan eta urtebeterako baliotasuna. Abuztuaren 26an gurutzatu zuen, etxerako bidean –hala uste zuen berak– muga, baina oraindik lau urte eman behar izan

zituena, irakasle lanetan, Zaragozan, harik eta 1948an hain maite zuen Zarautza joateko ordena etorri zitzaien arte.



Annappes. Okupazio garaian 3. Reicheko agintariek emandako nortasun agiria.

Hirugarren desterrualdia (1948-1954)

Iñaki heldu zenean *Villa Manuela*-n kokaturiko eskola ez zebilen batere ongi: ikasle oso gutxi zituen, ekonomiaren aldetik ozta-ozta mantentzen zen eta bazirudien urtetik urtera gero eta zailago izango zitzaiola irekita segitzea. Iñaki ez zen kikildu eta, bertako giro euskaldunak liluratu eta adoretuta, etxez etxeko kanpainan hasi zen ikasleak Colegio San Josea bideratu nahian. 1951n bertako zuzendari egin zuteneko, ikasleen kopurua bikoiztea lortu zuen eta 219 ikasle haiekin jo eta ke hasi zen euskara bultzatu eta lantzen.

Oraingoan ere, ordea, salaketek bere lan guztiek baino indar handiagoa izan zuten eta 1954ko urtearen hasieran Barrutiko Anaia Ikuslariak Madrilera joateko deia jaso zuen, Lehen Hezkuntzako zuzendariarekin hitz egin zezan. Gipuzkoako Gobernu Zibilean Zarauzko zuzendariaren aurkako salaketa serioak zeudela esan zioten, «nazionalista amorratua» izanik ikasleak ildo horretara lerratzen saiatzen zela. Gipuzkoako gobernadorearekin egindako elkarrizketak gauzak bizkortzea besterik ez zuen lortu. Dirudienez, ez zegoen Iñaki Zarauztik egozteara ala ikasturte amaieran eskola ixtea beste aukerarik.

Urtarrilaren 20an jarri zen Iñaki Olabeaga, berak esan ohi zuen bezala, «hirugarren erbestera bidean», baina oraingo honetan ez zuen herria iheslarien bakardadean utzi; zarauztar askok lagundu zion geltokiraino, omenaldi eta protesta gisa, maltzur batzuen zitalkeriak izan zezan herri xehearen erantzuna. Sestaon hiru urte oparo eman zituen eta beste bi Irunen, prailegaien formatzaile gisa oraingoan ere, Annappeseko desterruan gertatu bezala. Frantseseko irakasle aparta, lorazain modura jarduten zuen eskolak libre uzten zizkion orduetan. Euskararen gudariari zetorkion borrokarik gogorrenerako prestatzeko atsedenekua izan zen Irun, 1959an Bilborako bidean jarri baitzen, superioren hara destinatuta.



Sestaoko elkartean, Gipuzkoako Gobernu Zibilak Zarauztik bere hirugarren desterrura bidali zuen garaian. «Nazionalista amorratua» izatea zen leporatzen zioten salaketa.

Bilbo, zirimolaren furian (1959-1980)

Bilbora Bruño Liburudendaren ardura-dun gisa joan zen. Iñakirentzat aldaketa galanta izan zen, nolabait atzean uzten zuelako ordura arte bere bizitzaren ardatzetako bat izana zena, ikasle-ekiko harreman eguneroko eta estua. Hemendik aurrera beste modu batera jarriko zen hezkuntzaren zerbitzuan, argitaletxe handi baten ordezkari izateak suposatzen duen guztiarekin. Bilbora jo zuen gizona betiko gizon lehiakor eta bizia zen baina haren adiu-rrean gero eta nabariagoak ziren hain-beste batailak utzitako orbainak, gogo-etatsuago, lasaiago izatera bultzatzen zutenak.

Gizon heldu hark gau eta egun ateak irekita zeuzkan solasaldian denbora eman nahi zue-narentzat eta gazteek estimatzen zuten batik bat, hain egiten zitzaaien gizon ireki eta harrera onekoa. Bilboko urte haietan inoiz baino gar-biago gelditu ziren beren bizitzako bene-benetako ardatzak: gizon sakonki espiritual, hurbilean eta euskaraz bizi zuen bere Jain-koarekiko harremana; gizon zintzoa, eraso eta salaketengatik ere ez inork ez ezerk ez zuen lortu gaztetan aukeratutako bizimoduari zion leialtasuna gutxitzea; herriaren maitale porrokatua, Bilbon berehala aurkitu zuen norainokoa zen maitasun hori erakusteko ildo berria.

Berarekin etxean bizi ginenok gara bere lehia-ren lekuko, eguneroko biziera euskaraz egin ahal genezan. Baina, ordurarte ez bezala,



lñaki Olabeagaren senitartekoak: Patxi, bere anaia; Jose Luis Anasagasti eta Itziar Olabeaga, lñaki eta Maitane seme-alabekin, hauen jaunartze egunean.

oraingoan etxetik kanpo eginagatik hasi zen Bilboko giro euskaldunean ezaguna izaten lñaki Olabeaga, on Klaudio Gallastegi, San Antongo abadearekin batera. 1964ko urtarri-laren 1ean eman zioten hasiera on Klaudiok, lñakik eta on Arturo Intxausti organojoleak Bilbon berehala oihartzun izugarria izango zuen Euskal Mezari, aitzindari Hego Euskal Herrian.

Ordutik geroztik igande eta festabururo euskaldunet gainezka egoten zen Alde Zaharreko eliza, bertaratzen zirenei, horma lodiei bezainbat, herrimina zeriela, gorputze-ko poro guztiei euskal sentiberatasuna.

«Baldintzarik jarri gabe, nekagaitz, inoiz ez zuen Bilboko edozein parrokitan mezak eta hiletak zuzentzeko aitzakirik jartzen. Berak ematen zituen, aurretik prestatuta,




Bilbon, on Klaudio Gallastegirekin batera, San Antongo mezak zuzentzen zituen garaian.

abadearentzako eta organojolearentzako musika orriak... alde z aurretik jakinda batek baino gehiagok ez zuela batere ongi ikusiko.» (Asun Kandina de Markiegi). Roman Garate idazleak, berriz hau dio urte haietako gizonari buruz: «Iñaki goitik beherako gizona zen. Gauzak, gertakariak eta pertsonak beren neurrian jartzen zekiena. Gizatasunez betea, ez zen txikikeriatan galtzen».



1958ko uztailaren 6an, Hondarribian, Baxurko olerki lehiaketan irabazitako saria jasotzen.



«Anai I. Olabeaga, eusko-olerkari bikaña, Baxurko zanaren omenaldiko saria jasotzen. ¡Zorionak eta jarrai horrela! 1959ko uztailak 6. Sagartazu' tar Kauldi, Satarka».

Izugarrizko poza hartu zuen 1963an, Irunen aurrena eta Bilbon gero, «Gure Etxea» poema sinfoniko korala estreinatu zenean. Musika Tomás Aragüésena zen eta Iñaki Olabeagarenak hitzak. Egia esan, ez zen Iñakiren literatur ahaleginak arrakasta zuten lehenengo aldia, 1958an, Irunen irakasle zegoela, sari bat irabazita baitzeukan Hondarribian egindako «Baxurko» Olerki Lehiaketan. Baina ez dago dudarik kontzertu haiek guztiz bereziak izan zirela Iñakirentzat.


Barealdiak ez zuen luzaroan iraun eta 1960ko hamarkadaren azken urteotako zurrunbiloak indar ikaragarri jo zuen, oster, Olabeagaren bizitza. Añoveros gotzainaren kasuak asaldaketa politiko-sozial ikaragarria suposatu zuen elizaren inguruan bizi zen jendearentzat eta Iñakik ere, beste askok bezala, orduak eta orduak egin zituen Indautxuko plazan, gau eta egun, zutik, gotzainari sostengua eta leialtasuna erakutsi nahian.

Baina, gerra hasieran Valladolid inguruan bezala, oraingoan ere, ekaitza etxe barruan lehertu zen indar handienaz. Santiago Apostol ikastetxe ospetsua bere Diamantezko Ezteiak ospatzen ari zela, ospakizunen tenorea ez zen batzuen gustukoa izan eta eskolako aldizkarian, orduko Xabier Kintana gaztearen aholku zuhurrari jarraiki, euskarazko saila argitaratzen hasi ginenean, kaleratutako olerkien mezua mingarri egin zitzairen zenbaitzuri. 1968ko salaketak Bizkaiko Irakaskuntza Er-

tainetako inspektorea ekarri zuen ikastetxera. Txostena guztiz kontrakoa izan zen eta Bizkaiko Gobernu Zibilak Poliziaren Goi Jefaturaren txosten informatiboa bidali zuen Madrila. Poemaz gain, honako hauek ziren salaketaren ardatzak: banderari ustez egindako afrontua, ikasgeletatik Francoren irudia kendu izana eta astean behin, ostiraletan, elkarteko otoitzak euskaraz egiten zirela. Bitartean, izan ziren ere Informazio eta Turismoko ministroari, Fraga Iribarne jaunari, Anaia euskaldunen desterrua eskatuz idatzi ziotenak.

Hori bera eskatzen zien superioerei Madrileko Irakaskuntza Ertainetako Zuzendaritzatik bidalitako txostenak. Dokumentazioak «talde Ignacio» edo «talde separatista» gisa deitzen gintuen salaketetan inplikaturik geundenak. Baina oraingoan ere Iñaki zegoen erasoaren miran. «Polizia atzetik dauka... Anaia honen kontrako salaketen artean San Antongo mezak zuzentze-ekitaldi separatista da larrirenetakoa...» Oraingoan, ordea, barruan gauzak aldatzen hasiak ziren eta, Madrileko eta Bilbo-ko agintari politikoen presio izugarriagatik ere, salatzailea izan zen erbesterako bidea hartu behar izan zuena.

Interesgarria deritzogu garai hartako Iñakiren superiorak idazten duena aipatzeari: «Ez nuke egia osoa esango momentu dialektiko gogor haietan guztietan Anaia Iñaki betiere bere erreakzioen jaun eta jabe izan zela baietsiko banu. Ez bere adiurreak, ez iraganeko zauri mingarriek bere giza sentiberatasunean utzitako urratsek, ez zioten lagatzen eztabaida haietan konformidade goxoa erakusten. Baina ziurta dezaket noraino zen bihotz zabalekoa bere erasotzaileei buruzko adierazpenak egiteko orduan...» (Jose Pablo Basterretxea).



Bilbo (1968-69). Salaketa. Iskanbilaren zurrunbiloan.

Iñaki Olabeaga idazlea

Argitaletxeko lanetik jubilatuta, 1972an, ordura arte falta izan zuen denbora aurkitu zuen idazteko eta, aurrerantzean, olerkigintzari emana ikusiko dugu. Urte hartan bertan kaleratu zuen *Gogoetan* bere lehen olerki liburua. Claudio Gallastegi lagunak finantzatutako bilduma batean atera zen. 46 poemek osatzen dute 75 orriko liburu hau; 32k gai erlijiosoa dute eta besteek beste zenbait esparru ukitzen dituzte. Aita Villasante, orduko Euskaltzaindiko buruak hitz hauekin aurkeztu zuen liburua Aranzazu aldizkarian: «Kristau Eskoletako Anaia Olabeaga donostiarraren euskal olerkiak. Gaiak era askotarikoak dira: aberria eta erlijioa batik bat. Poesia sentibera da, sakona, gizatiarra, ongi idatzia, ulerterreza,


erritmo egokia eta lirikotasun handia duena, gaurko munduaren arazoak eta premiak jasotzeko gauza».

Poema hauek argitaratuta ikusteak indar handiagoz idaztera bultzatu zuen eta su eta gar jarri zen bere barne munduaren aberastasuna kaleratu eta sentimenduen emaria askatzera. Horrela, 1975ean argitaratu zuen bigarren poema bilduma, *Maite dedana*. Aurrekoa baino lodiagoa, 65 poema eskaintzen dizkigu 117 orritan. Oraingo honetan ere gai erlijiosoa da gehien agertzen dena eta Iñaki bera izan zen, lagun askoren laguntzari esker, edizioa ordaindu zuena.

Argitaratu eta urtebetera liburu honek egilearen bizi-esperientzia bera izan zuen. Madrilko Orden Publikorako 1. Epaitegiak, 1976ko



Iñaki Olabeagaren lehen poema liburua (Bilbo, 1972). «Izadiaren maitale, Jainkozale, lagunurkoarekiko arduratsu. Euskalerriarekiko kezkatu...» (Etxeberria'tar Juan Anjel).




Olabeagaren bigarren poema liburua (Bilbo, 1975). «Sentipen aundiz moldatuak daude neurtitzok. Eta biotzak itz egiten dizu. Euskera goxo, xamurra darabilkizu. Aurrera kementsu!» (Basarri).

494 sumarioa dela-eta, premiazko prozeduraz, liburuaren bahiketarako ordena eman zuen. 1976ko martxoaren 16an Orden Publikorako Eskualdeko Polizia-Brigadako bi inspektorek agindua bete zuten. Interesgarria izango litzateke Sumarioa eskuetan edukitzea jakiteko zerk bultzatu ote zuen Madrileko Epaitegi hura halako poema liburu txiki bat bahitzera. Baina ezin dugu ahanzi kalean zein giro nahasia zegoen: Gasteizko katedraleko hilketen ondoren Fragak bere demokrazia eredua martxan jarri zueneko egunak ziren; E.T.A.k Berazadi bahitu berria zuen...

Bi liburu hauen artean jarri beharko genuke Iñaki Olabeagak 1974ko uztailan Nafarroako euskarazko irakasle talde handi bati emandako hitzaldia. Sona handikoa izan behar zuen 1983ko *Principe de Viana* aldizkariaren osagarri batean honako lerro hauek idatzi baitzituen bertan izandako Sole Erbiti andereak: «Iruñean ezagutu nuen eta inoiz ez dut ahaztuko eman zigun ikasgaia. Bakarra, baina nahikoa. Bere bizitzaren laburpen garbia. Haren arima guztiz beteta baitzegoen irakaskuntzan eta euskaran. Nolakoa zen maisu euskaldun baten bizimodua adierazi zigun, urte zail eta egoera larrietan, batik bat: isiltasunez, apaltasunez, kezka, ulertezinez bete... Egun hartan, Nafarroako euskal irakasleok, zutik jarrita txalotu genuen Olabeagaren hitzaldia...».



1974ko uztailan Nafarroako euskarazko irakasleei egin zien hots handiko hitzaldian.



Poliziak Maite Dedana olerki liburuaren bahitu zuenekoak. (Martxoak 16, 1976).

Gazteen buru

Hurrengo urtean, 1975ean, Bilboko elkarteen berregituratzea erabaki zen, gazteenek eraginda, bizitza euskaraz egin ahal izateko aukera, hain zuzen ere. Une haietan aukera guztiz berria zen eta horrexegatik hasiera-hasieratik karga polemiko handi batez ikusi zuten proiektuaren kontra zeudenek. Horretan ziharduten gazteek bi gizon helduen izenak proposatu zituzten, hala nahi izanez gero, abentura hartan sar zitezen: Iñaki Olabeaga eta Baltaxar Otaegi. Biek onartu zuten eta Iñakiri, gainera, zuzendari izatea proposatu zitzaion. 74 urteko gizon hark onartu egin zuen,

asko kostata, dudarik gabe, Ibarrekolandako pisu batean bizitzeaz gain, elkartea ez baitzen batere homogeneoa: jubilatutako bat, lanean ziharduten bi irakasle eta bost unibertsitario.

Eztabaidarik latzenak politikaren eta euskararen ingurukoak ziren, Iñakik, hasiera hartan, lotu egiten baitzituen euskara batuaren auzia eta ezker abertzaleak. Halere, Iñakik jakin izan zuen pertsonak arazo horien gainetik jartzen, Roman Garateren hitz hauek erakusten duten bezala: «Noizean behin bere elkartean meza ematen nuen. Gazteez maitasun eta begirune handienez hitz egiten zidan. Ezberdinak zirela... baina balio handikoak.



Jose Antonio Zaldúa eta Begoña Olabeagaren familia.

Benetan maite zituen eta bere haienganako ardura benetako anaia batena zen, edo aita batena». Iñakiren iloba Begoñak ere hori bera esaten digu: «Ilusioz beterik ikusten genuen, ezkonberriek etxe berrian jartzen duten ilusio berberarekin».

Iñakik harengan eragin ikaragarria izan zuten bi gertakari bizi izan zituen 1976-1977 ikasurtean, pozgarria bata, samina bestea. 75 urte egin zituenean bi omenaldi zein baino zein ederragoak egin zitzaizkion, Errioxako San Asension bata, Barrutiko lagun guztiek eskainitakoa; Zarautzen, bestea, ikasle ohiek eta Zarautz herriak, oro har, egindakoa. Iñaki zirrarak jota gelditu zen, bere arreba Ebaristari idatzi zion gutunean ikusi daitekeenez: «Egunkarietako zenbait errekorre bidaltzen dizkizut. Beraietan nabaritutako duzu nolakoa izan den Zarautz herriak egin didan pekamen-omenaldia. Jai handia izan zen eta herriak, parrokiak, udaletxeak eta lagunek parte hartu zuten. Bezperan nire bizitzari buruzko hitzaldiak izan ziren, nire erbesteratzei, lan eta larrialdiei buruzkoak. Hurrengo egunean, orfeoia eta organoak apaindutako meza nagusia, ni alkatearen ondoan nengoela. Gero, dantzarien uztaien artean, plazan hartu ninduten, txistularien doinu ederrek nire bihotza gozatzeko zutela. Dantzariak gero, txistu kontzertua, bertsolariak.

Otorduan 350 lagun bildu zitzaizkidan. Nik neuk fundatu eta Mexikotik bueltan zetorren



Iñaki Olabeagak 75 urte betetzean Zarautz herriak egin zion omenaldian, «... Anai Iñaki izan baita, gure artean, erdal giroan leporaino murgildurik aurkitu izan ginenean, euskal senak eta suak gugan pizturik irautea posible egin zuenetako bat...» (Jose Manuel Agirrezabalagaren hitzaldia, Iñaki Olabeagaren omenaldian, 1977ko abenduaren 18an).

orfeoia abestu zuen. Gero opariak izan nituen, herriko armariarena, *Aita Donostiaren* kanta-liburua, Iribar futbolariak eskainitako Bachen disko-bilduma... Gero nik beraiei eskolan irakatsitako kantuak abestu zizkidaten... Benetan festa bete-betea».



Zarautz herriak egin zion omenaldian, ikasle ohiz, lagunek eta herriko agintariez inguratuta.

Azken urteak


Gertakari samina Baltaxar Otaegiren heriotza izan zen, Urduñako Tologorriko bidean aurkitu baikenuen, bihotzekoak jo eta elurrak estalita. Izugarri ondo ezagutzen zuen Juan José Brunet bere ikasle ohiak esanda dakigu Iñaki gero eta bakarrago sentitzen hasi zela askotan euskarari, aberriari eta hezkuntzari buruzko irizpide oso ezberdinak adierazten zizkieten gazteez inguratuta. Beraz, 1977an zuzendaritza kargutik ken zezatela eskatu eta bi urte gehiago eman zituen Ibarrekolandan, askoz lasaiago, ardura latz hartatik libratuta. Eta barealdi garai guztietan gertatzen zitzaion bezala, literaturari eman zitzaion berriz ere. Urte berean argitaratu zuen bere hirugarren poema liburua, *Biotz iturritik*. 108 orritan biltzen du urtebeteko sortze lana, aurrekoen

tankerakoa bai gaiari bai estilo eta literatur baliabideei dagokienez.

Bestalde, esan beharra dago, errespetatzen bagintuen ere, Iñaki ez zela guztiz gustura aurkitzen euskara batuaren prozesuak zera-man bidearekin eta *Euskerazaintza* taldean sartu zen. Ordukoa da ere itzulpengintzan egindako saioa. La Salleko Joan Bautista donearen literatura aszetikoa itzultzen jarrita, Iñakik lan horretan aurkitu zuen bere bai frantsesaren bai euskararen ezaguera sakona erakusteko beta. *Gogo jardunetako otoitz-gaiak* maisutasun handiz itzulitako liburua da, terminologiaren aldetik oso zehatza eta tonueraren aldetik zintzotasunez bete. Horixe izan zen Bilbon euskararen arloan egin zuen azken lana. Urteen zamak eta aspalditik gaixoturiko birikek ematen zioten nekeak makurtuta,



Iñaki Olabeagaren hirugarren poema liburua. (Bilbo, 1977). «...garbi aitortu behar. Olerki giroa ez da egunerokoa, nerea beintzat» (egilearen hitzak liburuaren aurkezpenean).



Jean Baptiste de La Salleren *Meditations pour le tems de la Retraite* liburuaren itzulpena, Inazio Acha eta Martin Lasaren laguntzarekin burutu zuena (Argitalpen postumoa, Donostia, 1990).



Iñaki Olabeagaren literatura lanak.

Etxekoak gorpuaren bila joan zirenean, bazirudien destinoak, heriotzako orduan ere, gizon haren jardunaren azken oroigarria eskaini nahi izan zigula guztioi: «Gorputegian dago –esan zien sendagileak– eta zorte txarra izan duzue hantxe baita atentatu batean hilda-ko guardia zibil bat ere, eta sarrera Guardia Zibilek zainduta dago. Ez daukazue zer eginik, ezin izango duzue bihar arte eraman».

Baina ez zen destinoaren azken keinua izan, Irungo La Salle-enean Iñakiren aldeko elizkizunak ospatzen ari ziren une berean ari baitziren ere egiten Fernando Artola *Bordari*, Iñakiren ikasle izandako lagun handiarenak Hondarribian. Lagunen eta familiakoen artean euskal erakunde askoren ordezkariak

1980an utzi zuen betiko bere Bilbo maitea, heriotza hurbil zeukala jakinaren gainean.

Irungo erretiro etxean beste itzulpen lan bati ekin zion, bihotz eta arima: Maillefer-ek idatzitako *La Salleren bizitza*-ri, harik eta bukatu zuen arte, oraindik argitaratu gabe badago ere. Artean izan zuen beste omenalditxo bat, Liernin 1982ko azaroaren 13an ospatutako Euskararen Egunean hain zuzen ere. Martin Lasaren esker onezko hitzalditxoak sututa, Iñakik gogo onez eta bihotzetik eskaini zizkien bertaratutako guztiei bere bizitzaren hainbat eta hainbat gertakari. Handik gutxira hil zen, Donostiako Gurutze Gorrian, otsailaren 2an.



Liernin, 1982ko azaroaren 13an, salletarrek beren lehenengo Euskararen Egunean eginiko omenaldian, bere bizitzako zenbait gertakari kontatzen.

zeuden, Juan José Pujana, Eusko Legebiltzarreko presidentea, besteak beste, eta bertan irakurri ziren Carlos Garaikoetxea lehendakariaren eta beste zenbait pertsona ospetsuren

mezuak, Jean Sauvage, Annecyko gotzainarenekin batera, hitz bero haiek hainbeste erbeste, hainbeste leialtasun eta sufrimenduarentzako aterpe izan nahi balute bezala.



Mikel Atxaga idazlearen artikulua Deian, Iñaki Olabeagaren heriotzaren berri emanez, 1983ko otsailean.



Salletarrek argitaratutako Iñaki Olabeagaren bizitza laburra (118 or.).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Sabino Arana Kultur Elkargoa. Abertzaletasunaren Agiritegia.*
- *Martin Lasa, La Salleko Anaien Bilboko Barrutiko idazkaria.*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: 1.a, 2001eko azaroa

Ale-kopurua: 2.425

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Beato Tomás de Zumárraga, 66 - 01009 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1767-7
84-457-1771-5

L.G.: VI-512/01

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística